

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Mariaen karkatasuna zere erabusten dau du
2. Sorgina da? Zertako?
3. Maria beldurtia zena?

Piarres

MARIA ZAHARRA. 8.

Hainbertzenarekin hamar ornek jo zuten sukalde xokoan, eta intzireka xutitu zen Maria:

"Atx! Atx!... Ez da oraiko errana, xahartuta Atx erraiten dela jartzean, Atx! Atx! aldiz, xutitzean!... Jainkoak dauzuela gau on, jende maiteak!..."

"Berant ez othe da gaur goiti zuretzat, Maria?"

"Zer munta du, eta noren beldur behar naiz? Sorginen?... Bakharrak baitut ikusirik nere bizian aireko horietarik, intha guzietan, eta bethi gauaz!... Ez dute nere gainean ahalik! Sorgina ez naiza nihaur?"

"Oihanaldean ez, segurki, zure motto¹⁷ pullitaren barnean ileak hola bildurik. Bainan, han, zure etxeño hartan, ile hoik alde guzietara dilindan, zure laneko soinekoetan agertzen ziren aldietan!... Zu baino pullitagorik bada orduan non nahi, Maria!..."

"Behozue, behozue; Piarres ozarrari! Hots, berriz ikus arte, haurrak".

Eta hirriz urrundu zitzaieten Maria. Bainan, hamar urhats gabe, maiz hola egiten ere zuen bezala, berriz han zuten, gibelerat itzulia:

"Errak, Piarres, jakintzak gero, girixtino on bat nahi dela bethi Maria. Ur benedikatuarekin ongi zainaturik baizen ez nauk behin ere joan nere kamantzarat, eta supazter-xokoan han dituk ene bethiko liburuak: Testament Zaharra eta Sainduen Bizitza... Gero a... Piarres! Arrosarioak eskuan banioak etxera... Errak, eta, pipita b... bat ikusi baitiot ostixoan zuen kandelari, noren letra behar duk, bihar, Piarres?..."

Eta, xafla xafla bere makilaren gainean finkatuz, elhurraren gainean lerratuz, gau ilhuncan santsitu zen Maria. Eta, atxoak hola sistaturik, hirriz bere buruarekin gelditu zen Piarres. Letra bat? Norenganik?... Eta berak jakin ere gabe zertako, gorri gorria egin zen, Lizartzako Goñaz bet betan orhoiturik...

34. IZAN - Conj. familière Indic. Présent.

- Ni nauk/n nauk/n = je suis
- Hi haiz = tu es
- Hura duk/n = il est
- Gu gaituk/n = nous sommes
- Zuek zaizte = vous êtes
- Heek dituk/n = ils sont

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Dauzuela 32. Behozue
- 33. Zitzaioten 34. Nauk. dituk
- 35. Banioak 36. Baitiot.

31. UKAN Conj. à dble cplt. - Indic. Présent.

O. Singulier Neri = à moi Comp. Indic. Sing.

- Zuek dautazu = vous me l'avez } Emaiten
- Harek daut = Il me l'a } dautazu
- Zuek dautazue = vous me l'avez } vous me le
- Heiek dautate = Ils me l'ont } donnez

Objet singulier - Zueri = à vous autres Comp. Ind. Pluriel

- Nik dauzuet = je vous l'ai } Emaiten
- Harek dauzue = il vous l'a } dauzuet
- Guak dauzuegu = nous vous l'avons } Je vous le
- Heiek dauzuet = ils vous l'ont } donne (à vous autres)

32. BEHATU = regarder - Impératif. C. Fête

- Behazu = regardez (sing.)
- Behozu = regardez - lui le (sing.)
- Behozue = regardez - lui le (pluriel)

33. IZAN Régime Indirect. Indic. Imparfait

Hura zen = Il était.

- Hura (lui) Zitzaitan (à moi) = il m'était
- " Zitzaizun (à vous) = il vous était
- " Zitzaiion (à lui) = il lui était
- " Zitzaizun (à nous) = il nous était
- " Zitzaizun (à vous) = il vous était
- " Zitzaien (zitzaioten) (à eux) = il leur était
- " Gu ginen = nous étions
- Gu (nous) Gintzaizikizun (à nous) = nous nous étions
- Gintzaizikien (à lui) = nous lui étions
- Gintzaizikizuen (à vous) = nous vous étions
- Gintzaizikien (à eux) = nous leur étions